

AERONAUTIKA

Miñaoko hegazkin laborategia Europar aitzindari

Miñaon (Araba) CTAK eraikitako laborategi aeronautiko berria obratan.



Aste gutxi barru egongo da prest Teknologia Aeronautikoen Zentroak (CTA) sortutako laborategi aeronautikoa. Miñaoko Teknologia Parkean (Araba) egongo da laborategia eta sektoreko hiru enpresa garrantzitsuenek sustatu dute sorrera: Aernova, ITP eta Sener. Lehenengo lanak Airbus enpresarentzat izango dira. Airbusek, besteak beste, zama-lanetarako hegazkin militarra egiten du Europako partzuergoarentzat, A-400-M hegazkina.

DANIEL UDALAITZ



SANTURTZI

Herriko Parkean, ekainaren 15etik 24ra arte

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

*Bizi
irakurriz!*



Langileak hegazkinaren piezen erabilgarritasuna ziurtatzen.

EUSKAL HERRIKO aeronautika sektorea oso azkar ari da “hegan” egiten, eta badirudi bere urrezko aroan dagoela. Azken zortzi urteetan irabaziak bikoiztu egin ditu. 6.300 langile baino gehiago ari dira sektorean eta kopurua bikoiztu egin da azken urteetan. Miñako Teknologi Parkean egiten ari diren laborategi aeronautiko berria horren erakusgai da. Teknologia Aeronautikoen Zentroak (CTA) sortu du laborategia eta, European, aitzindaria izango da. Inaugurazio ekitaldia abuztuan egitea aurreikusi dute, baina, aurretik, laborategian egongo den tresneria doitu eta probak egin beharko dituzte, guztia martxan jarri ahal izateko.

CTA sektoreko hiru enpresa garrantzitsuenek sustatzen dute: Aernova, ITP eta Sener enpresek. Aernovak Gasteizen ere baditu instalazioak, eta Gamesa enpresaren aeronautika ataletik jaio zen. Haren kapitala Gamesatik eta Castilla La Mancha aurrezki kutxatik etorritako kudeatzaileen artean banatuta dago. ITP eta Sener enpresek Bizkaian dituzte instalazioak, eta, oso ezagunak izateaz gain, esperientzia handia dute sektorean. Hiru

enpresek 1997tik dute teknologia zentro espezializatua, CTA deritzona, eta bi egoitza ditu CTAk, Miñako eta Zamudioko parke teknologikoetan bana. Arabakoan, laborategi berriaz gain, egitura probak egiteko zentro bat dute, gainera. Bizkaikoan, motorren

Teknologia aeronautikoen zentroaren lehenengo bezeroa Airbus izango da hiru milioiko kontratuarekin

saioak egiten dituzte. CTAk 3,6 milioi euroekin itxi zuen azken ekitaldi ekonomikoa, %12,5eko igoera izan zen hori. Egun, goi mailako prestakuntza duten 40 langile ditu, eta 60 langile izatera hel daiteke.

Laborategi berriaren gakoak

Laborategi berria Miñako Teknologi Parkean dago eta, European, erreferentziatzat jotzen da. 2007an, 2,3 milioi euro inbertitu dira laborategi hori egin ahal izateko. 8.200 metroko

lursaila hartzen du eta 200 metroko azaleran egin dituzte eraikinak. Laborategian, saioetarako bi gela daude elkarren ondoan. Hamabost metroko altuera dute gelek, pieza edo atal handiekin lan egin ahal izateko. 450 metroko hiruki formako eta bost metroko altuera duen gela bakarrean atxikita daude bulego teknikoak. Hegazkinen atalen “bizitza oso azeleratu”ko saioak egingo dira laborategia horretan. Goi teknologiaz hornituta egongo da, HALT delakoaz. Dagoeneko, munduko eraikitzaile garrantzitsuenek eskatu dute goi teknologia hori, esate baterako, Boeing eta Airbus enpresek, eta, Ipar Amerikan horrelako laborategiak badauden arren, European aeronautikaren industriadako horrelako zerbitzu aurreratua eskainiko duen lehenengoa izango da.

Zein da laborategi horren gakoak? Teknologia berri horiekin egingo dituzten saioek hegazkinetako piezak egiaztatzeke denbora murriztuko dute. Hegaldiak hasi baino lehen, hegazkinaren pieza guztiek azterketa zorrotzak gainditu beharko dituzte muturreko egoeretan. Zertarako?

Oso goian hegan egiten ari den sektorea

Euskal Herriko aeronautikaren sektorea oso altu ari da "hegan" egiten eta, adituen eta analisten arabera, etorkizun bikaina du. Ipar Amerikako irailaren 11ko atentatuaren ondoren, mundu mailako beldur eta krisi denboraldia jasan behar izan zuen sektoreak. Egun, krisi hori gaindituta dago. Hainbat arrazoik iragartzen dute aeronautikaren etorkizun ona: aireko zirkulazioak eta aparatu handien eskaerak mundu osoko merkatuetan izan duten gorakadak, merkatu zoko berriak, hegazkin pribatuak edota aerotaxiak.

Sektore horretako konpainiek, adibidez, ezaugarri bereziak dituzte Euskal Herrian: balio erantsi handia eta goi mailako prestakuntza duten langileak. 1997an, Hegan izeneko klusterra (sektore elkar-tea) sortu zen. Kluster horretan, aeronautikarekin zerikusia duten 35 enpresa eta zentro teknologiko daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Aernova, ITP eta Sener dira sektore horretako enpresarik garrantzitsuenak. Kluster horretako enpresek aireontzi handien programetan hartzen dute

parte, esate baterako, A-380 hegazkinean, Airbusen beste lanetan eta Boeing markako zenbait hegazkin motetan, baita Embrearen eta Bombardier fabrikatzaileen lurralde hegazkintan, negozioetarakoetan edota Sikorsky helikopteroetan ere. Erreportaje honen hasieran aipatutako CTAreneko laborategi berriaren lanak beste bultzada bat ekarriko du sektorearentzat.

EAEko aeronautikaren sektorean, 1999an, 2.922 langilek egiten zuten lan orotara; 2006an, berriz, 6.321 langile zituen, eta espero da datozen urteetan langile kopurua handitzea. Azken ekitaldi ekonomikoan, 2006an, 837 milioi euroko fakturazioa izan zuen, 2005ean baino %7 gehiago, eta Espainian sektoreak batez beste lortu zuena baino gehiago, %5 inguru handitu baitzen. Azken zortzi urteetan, fakturazioa bikoiztu egin da. Fakturazio oso horretatik, 570 milioi euro esportazioetatik lortu zuten. I+G oinarria da sektore horretan eta, iaz, 115 milioi euro bideratu ziren bereziki horretara, 2005ean bideratutakoa baino ia %49 gehiago.

Pieza bakoitzaren mugak ezagutzeaz gain, haien benetako iraupena ezagutzeko, arazoak sortu eta hegazkina arriskuan jarri baino lehen. Orain arte, piezak aztertzeako sistema tradizionalak lau hilabete eta urtebete bitartean irauten zuten, eta, Euskal Herriko laborategiko teknologia berriarekin, denbora hori %90 txikituko da, adituek diotenez. Are gehiago, kasu batzuetan, astebete baino ez dute iraungo.

Airbusen A-400-M hegazkinerako lehenengo lanak
Lehenengo bezeroa Airbus izan da, Espainiak bere filialaren

bidez lortu baitu kontratua egitea, hau da, Sistema Aeronautikoen Espainiako Konpainiaren (CESA) bidez. A-400-M zamalanetarako hegazkin militarra izango denaren osagai hidrauliko eta mekanikoak helarazten hasiko zaizkio laster. Horregatik, laborategia prestatu ondoren, hegazkin militarren egiturako zatiak sartzen hasiko dira laborategiko proba getetan. Lau motorreko hegazkina da; 42 metro luze da, eta 32 tonako pisua du. Euskal Herriko enpresak Airbusekin sinatu duen kontratuaren arabera, hiru milioi euro irabaziko ditu, eta 2010 arte izango du lana. ■



TXIKIPOLIT JATETXEA

Musika plaza.
20800 Zarautz
Tel: 943 83 53 57
e-posta: info@txikipolit.com
web orria: www.txikipolit.com

